



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA
MANKOMUNITATEAREN ARTEKO LANKIDETZA
HITZARMENA, GARBIGUNEAK JARTZEA
FINANTZATZEKO**

Donostian, 200Xko XXXaren Xan

ELKARTU DIRA

Alde batetik, Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuko foru diputatu CARLOS ORMAZABAL URBIZU, Foru Aldundiaren ordezkaria, 2008ko abenduaren 23an Diputatuen Kontseiluak hartutako erabakiaren bidez ekitaldi honetarako berariazko baimena jaso duena.

Beste aldetik,,
Mankomunitateko,
mankomunitateko zuzendaritza batzordeak
hartutako erabakiaren indarrez diharduelarik.
..... mankomunitateak eta
bere lurralde esparruan sortzen diren hiri hondakin
solidoak biltzea da bere egitekoa.

PARTE HARTZEN DUTE

Bakoitzak bere karguko eginkizunak betez,
hitzarmen hau egiteko elkarri gaitasun osoa
aitortzen diotelarik; hori dela eta,

ADIERAZTEN DUTE

Ingurumen gaietan gipuzkoarrek duten ezagutzari esker, gaur egun asko jaitsi da hondakinak kontrolik gabe isurtzeko ohitura. Halarik ere, mota horretako isurketa guneak sortu ohi oraindik. Batez ere tamaina handiko hondakinak isurtzen dira, esate baterako, sofak, koltxoiak, etxetresna elektrikoak eta etxean obra txikiak egitean sortutako hondakinak. Jokamolde horiek aldatzekotan, baliabide egokiak eta hurbilak eskaini behar zaizkie herritarrei. Horietako bat dira garbiguneak edo materialak berreskuratzeko eremuak, material berreskuragarriak neurri baten berreskuratzeko aukera ematen dutenez.

Eremu horietan materialak berezita utzi behar direnez, materialok berreskuratzea errazagoa da eta "birziklatu ahal izateko bereziki dezagun" dioen kultura zabaltzen da herritarren artean. Herritarrei isurketa gunea hurbiltzen dioten azpiegiturak dira eta, gainera, osagarri ezin hobeak dira udalen edo mankomunitateen ohiko bilketa zerbitzuentzat, zerbitzu horiek ez baitira beti erosoak edo errazak izaten herritarrentzat eta merkatariarentzat oro har, zer maiztasunarekin eta zer modutan ematen diren kontuan hartuta.

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA Y LA
MANCOMUNIDAD DE PARA LA FINANCIACION
DE LA CONSTRUCCION DE GARBIGUNES**

En Donostia-San Sebastián, a de de

REUNIDOS

De una parte, el Ilmo Sr. D. CARLOS ORMAZABAL URBIZU, en calidad de Diputado Foral del Departamento de Desarrollo Sostenible de la DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA, actuando en representación de la misma, en virtud del acuerdo adoptado por el Consejo de Diputados de fecha 23 de diciembre de 2008.

De otra, el, en calidad de de la Mancomunidad de, que tiene como fin la gestión de los residuos sólidos urbanos generados en su ámbito territorial, actuando en virtud del acuerdo adoptado por la Comisión ejecutiva de dicha Mancomunidad con fecha

INTERVIENEN

Ambos en el ejercicio de las funciones propias de sus cargos, reconociéndose mutua y plena capacidad para el otorgamiento del presente Convenio, y al efecto,

EXPONEN

En la actualidad, gracias a la concienciación de la población guipuzcoana en aspectos medioambientales, ha disminuido considerablemente la práctica del vertido incontrolado de residuos. Sin embargo, todavía continúan surgiendo este tipo de focos de vertido, en donde fundamentalmente se vierten residuos voluminosos como sofás, colchones, electrodomésticos y residuos procedentes de pequeñas obra domiciliarias. Para eliminar dichas prácticas, se hace necesario dotar de medios adecuados y cercanos a la población, como son los garbigunes o áreas de recuperación de materiales, instalaciones que permiten, en la medida de lo posible, recuperar aquellos materiales que sean susceptibles de ello.

El depósito separado de los diferentes materiales en dichas áreas facilita su recuperación y fomenta entre los ciudadanos la cultura de "separar para reciclar". Se trata de infraestructuras que acercan el punto de vertido al ciudadano y constituyen además, un complemento ideal a los servicios ordinarios de recogida municipales o mancomunados, cuya frecuencia o forma de prestación no siempre resultan cómodos o fáciles de utilizar para los ciudadanos, comercios, etc.



Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteari buruzko 1998ko otsailaren 27ko 3/98 Legeak 74. artikuluan ematen dion eskumena bere eginez, udalaz gaindiko mota horretako azpiegiturak egin daitezzen bultzatu du Gipuzkoako mankomunitate guztietan, eta azpiegitura horiei buruz duen esperientzia eta jakintza eskaini du, eta baita egin beharreko zuzkidura ekonomikoak egin ere.

Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorren Aurrerapen Dokumentuak (onarpen fasean dago gaur egun) asmo handiko helburua jartzen du 2016. urterako, hau da, sortzen diren hondakinen % 46,2 birziklatzea, eta helburu hori erdiesteko eskuratu beharreko kudeaketa baliabideak proposatzen ditu. Garbigune gehiago jartzea da baliabide horietako bat eta, helburu hori lortzeko, elkartuta ahalegindu behar dira Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuan eta Gipuzkoako mankomunitateak.

Ilido horretan, bere jarduera esparruaren barruan garbikuneak jartzen jarraitzea erabaki du Mankomunitateak. Erabaki hori betez, udalerrian garbigune bat jartzeko obrak hasi nahi ditu laster baino lehen. Garbiguneak 2.000 m² izango ditu gutxi gorabehera, eta bi plataforma maila desberdinetan. Beheko mailakoan edukiontzia jarriko dira, goiko mailakotik botako diren hondakinak jasotzeko. Garbiguneak ahalmen handiko 9 edukiontzi izango ditu gutxienez.

Kudeaketaz arduratuko diren langileak izango ditu garbiguneak, eta baita pisatze sistema bat ere bertan jasotzen diren materialak kontrolatzeko. Datuen jarraipena egiteko, SIGRU programa informatikoa erabiliko da. Gipuzkoako Foru Aldundia ari da programa hori prestatzen, eta Garapen Iraunkorreko Departamentuak utziko dio. Garbiguneak, beste aldetik, neurri ez handiko eremu estali bat eduki behar du, hondakin arriskutsuak jasotzeko bereziki prestatua (bateriak, pilak eta metagailuak, fluoreszenteak, automozioako olio erabilia, kutsatutako ontzi hutsak, pinturak, bernizak eta abar).

Materialen berrerabilpena sustatu nahi baita, esparru batzuk prestatuko dira, berriro erabil daitezkeen edo erraz konpon daitezkeen materialak bertan uzteko. Ikuspegi horrekin, birziklatu aurretik konpondu eta komunitate ikuspegiaren arabera berrerabili daitezkeenez, jostailu erabiliak eta, ahal den neurrian, mota horretako beste hondakin batzuk

Desde el Departamento de Desarrollo Sostenible de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y con base en la competencia atribuida en el artículo 74 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, se ha venido impulsando la construcción de tales infraestructuras supramunicipales en todas las mancomunidades guipuzcoanas, aportando, tanto su experiencia y conocimiento al respecto como las dotaciones económicas correspondientes.

El Documento de Progreso (DdP) del Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa (PIGRUG), actualmente en fase de aprobación, plantea, en el horizonte temporal de 2016, un objetivo de reciclaje muy ambicioso del 46,2% de los residuos generados, proponiendo al mismo tiempo los instrumentos de gestión necesarios para el cumplimiento de ese objetivo, entre los que se encuentra el incremento de la dotación de garbigunes, para lo que es necesaria la realización de un esfuerzo conjunto entre el Departamento de Desarrollo Sostenible de la Diputación Foral de Gipuzkoa y las mancomunidades guipuzconas.

En este sentido la Mancomunidad detiene previsto continuar la construcción de garbigunes en su ámbito de actuación. En breve tiene la voluntad de iniciar obras para habilitar un garbigune en el municipio Se tratará de una superficie de aprox. 2000 m². que contará con dos plataformas a diferentes niveles, en la que en el nivel inferior estarán ubicados los contenedores que recibirán los residuos que se descarguen desde la plataforma superior; se les dotará de un mínimo de 9 contenedores de gran capacidad.

Estas instalaciones dispondrán de personal para su gestión y estarán dotadas de un sistema de pesaje para el control de los materiales recibidos en el mismo. Para el seguimiento de los datos se utilizará el programa informático SIGRU, que está desarrollando la Diputación Foral de Gipuzkoa, y que le será facilitado por el Departamento de Desarrollo Sostenible. Deberá contar además con una pequeña zona cubierta destinada específicamente a la recepción de residuos peligrosos (baterías, pilas y acumuladores, fluorescentes, aceite usado de automoción, envases contaminados vacíos, pinturas y barnices, etc.).

A fin de potenciar la reutilización de materiales se dispondrá de áreas donde se facilite el depósito de aquéllos que sean reutilizables y/o fácilmente reparables. En esta línea, en estos garbigunes se deberá prestar el servicio de recogida de juguetes usados y, en la medida de lo posible, de otros residuos que siguiendo la jerarquía comunitaria puedan ser



biltzeko zerbitzua ere eman behar du garbiguneak. Beste aldetik, etxean konposta egitea bultzatu nahi denez eta kalitateko konposta egiteko behar den material egituratzailea herritarrek zailtasunez eskura dezaketenez, mankomunitateak material egituratzailea (inausketa-gaiak xehatuak eta izpituak) jarriko du doan nahi duenaren esku. Edozein erataria, prest egon behar du xede bereko makineria eramangarria edukitzeko eta eskatzen dioten herritarrei uzteko.

Aurrekoa ikusirik, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Mankomunitateak hitzarmen hau sinatzen dute, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehena.- Hitzarmen honen bitartez arautzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak -Garapen Iraunkorrekoko Departamentuaren bitartez- zer baldintzatan emango dion diru laguntza Mankomunitateari, bere esparruaren barruan garbigune egin ditzan, bere kabuz edo kudeaketa sozietatearen bitartez. Obren kostua, BEZa -dela, € euro da gutxi gorabehera.

Bigarrena.- Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak euroko ekarpena egingo du, BEZa -dela, kontu sailaren kargura.

Diru laguntza bateragarria da helburu bereko beste edozein subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabiderekin. Diru laguntzaren guztizkoak inoiz ez du jarduera diruz lagunduaren kostua gaudituko, ez banaka ez beste subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin batera.

Hirugarrena.- Mankomunitateak egiaztatu du zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela, bai eta 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoaren, 12. artikuluan onuradun izateko ezarritako gainerako baldintzak ere.

----- Mankomunitateak, 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzenak, 13. artikuluan xedatutako betebeharez gain, ondokoak ere izango ditu:

- Garapen Iraunkorrekoko Departamentuari igorri garbigunearen proiektuaren kopia bat, lanak lizitaziora atera aurretik, onar dadin.
- Hitzarmen honetan aipatutako lanak egiteko egin beharreko kontratazioak egitea, bere kabuz edo kudeaketa sozietatearen bitartez.

objeto de preparación para la reutilización antes del reciclaje. Por otra parte y en línea con la potenciación del compostaje doméstico y ante la dificultad que muestran los ciudadanos de disponer de material estructurante para realizar un compost de calidad, la Mancomunidad pondrá gratuitamente a su disposición material estructurante (poda triturada-desfibrada). En su caso, estará dispuesta a mantener maquinaria portátil cuya finalidad sea la misma y pueda ser prestada a la ciudadanía que así lo demanden.

En base a todo lo anterior, la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Mancomunidad de suscriben el presente convenio con arreglo a las siguientes

CLÁUSULAS

Primera.- Es objeto del presente Convenio regular las condiciones en las que la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del Departamento de Desarrollo Sostenible, va a subvencionar a la Mancomunidad de las inversiones dirigidas a la construcción de garbigunes en su ámbito, realizadas por sí o a través de su sociedad de gestión, con un coste aproximado de€ (IVA -)

Segunda.- A tal efecto, la Diputación Foral de Gipuzkoa se compromete a realizar una aportación económica máxima de --- euros (--- €), IVA -, con cargo a la partida presupuestaria

Esta subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, sin que el importe de la misma, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Tercera.- La Mancomunidad de ha acreditado encontrarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, y cumple también el resto de los requisitos establecidos para obtener la condición de entidad beneficiaria en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Son obligaciones de la Mancomunidad de, además de las establecidas en el artículo 13 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, las siguientes:

- Remitir al Departamento de Desarrollo Sostenible, y de forma previa a la licitación de las obras, una copia del proyecto de garbigune para su aprobación.
- Realizar, por sí o a través de su sociedad de gestión, las contrataciones necesarias para la puesta en marcha de la actuación objeto de Convenio.



- Indarrean dagoen legeriaren arabera eskatu beharrekoak diren lizentzia eta baimen guztiak eskuratzeaz arduratzea.

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzaren agertzea diru laguntza jaso duen jarduerak izango dituen elementu, argitarapen, liburuxka edo publizitate mota guztietan, eta azalpen horiek gutxienez euskaraz egitea.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo dituen egiaztapenak onartzea, bai eta finantza kontrol hauek ere: batetik, 2007ko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoan, eta, bestetik, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko legerian ezartzen direnak. Horretarako, diruz lagundutako jarduerak aurrera eramane eta gauzatzeari buruz eskatzen dioten informazio osagarri guztia emango du.

- Gipuzkoako Foru Aldundia jakinaren gainean jartzea beste herri administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berdineko beste diru laguntzaren bat ematen badiot, edo diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatzen bada.

Laugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiak bere ekarpena Mankomunitateari hitzarmenaren indarraldia amaitutakoan ordainduko dio, honako dokumentazio hau biltzen duen kontu zurigarria aurkeztu ondoren:

- Laguntza emateko baldintzak bete direla azaltzen duen jardueraren memoria, zer jardueraren egin ziren eta zer emaitza lortu ziren zehaztuta.

- Egindako jardueraren kostua biltzen duen memoria ekonomikoa, honako hauek bilduko dituen:

a) Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hornitzailea eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazita.

b) Fakturak edo trafikoko juridiko merkantilean pareko frogaren balioa duten edo eraginkortasun administratiboa duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan bildutakoak eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duen dokumentua.

Faktura horiek entitate onuradunaren edo horren kudeaketa sozietatearen izenean egon beharko

- Responsabilizarse de la obtención de aquellas licencias y autorizaciones que, conforme a la legislación vigente, sean exigibles.

- Hacer constar la colaboración de la Diputación Foral de Gipuzkoa en todos aquellos elementos, publicaciones, folletos o publicidad en general que genere la actividad subvencionada, la cual deberá realizarse, por lo menos, en euskera

- Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por la Diputación Foral de Gipuzkoa, a las actuaciones de control financiero previstas en la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y a las previstas en la legislación del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, facilitando cuanta información complementaria le sea solicitada en relación con el desarrollo y ejecución de las actuaciones subvencionadas.

- Comunicar a la Diputación Foral de Gipuzkoa la obtención de otras subvenciones y ayudas para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes tanto públicos como privados, así como la modificación de cualquier circunstancia que se hubiese tenido en cuenta para la concesión de la subvención.

Cuarta.- La aportación económica de la Diputación Foral de Gipuzkoa se hará efectiva a la Mancomunidad de previa presentación, a la conclusión del plazo de vigencia del convenio, de una cuenta justificativa que contendrá, con carácter general, la siguiente documentación:

- Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

- Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, que contendrá:

a) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.

b) Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior y, en su caso, la documentación acreditativa del pago.

Estas facturas podrán estar expedidas a nombre de la entidad beneficiaria o a nombre de su sociedad de



dute.

c) Obren azken ziurtagiriaren ale bat. Ziurtagirian amaierako lanen planoak aurkeztu beharko ditu, benetan egin den lana islatzen dutenak, egindako inbertsioa egiaztatzeko

Diru laguntza zuritzeko xedatutako epean ez bada klausula honetan adierazitako dokumentazioa aurkezten, beste 15 eguneko epean aurkez dezan eskatuko dio erakunde onuradunari organo eskudunak. Epe berriaren barruan egiaztapenak ez aurkezteak, seigarren klausulan aurreikusitako ondorioak ekarriko ditu.

Erakunde onuradunak lau urteko epean gorde egin behar ditu diruz lagundutako jarduera egin dela eta jasotako funtsak erabili direla egiaztatzen duten agiriak. Egiaztagiria aurkezteko erakunde onuradunak duen epea amaitzen denean hasiko da lau urteko beste epe hori.

Adieraztikao den dokumentazioa aurkezten denean, organo emaileak dagozkion egiaztapenak egingo ditu. Egiaztapen horren ondorioz ateratzen bada kostu subentzionagarria onartu zen diru laguntza baino txikiagoa dela, edo diru laguntza zuritzeko baldintzak ez direla osorik edo neurri batean bete, edo ez direla diru laguntzaren helburuak bete, entitate onuradunari gorabehera horren berri emango zaio eta egindako egiaztapenaren emaitzak jakinaraziko zaizkio, eta, seigarren klausulan aurreikusita dagoen bezala jokatuko da.

Hala ere, konturako ordainketak egin ahal izango dira eta, horrela, diruz lagundutako jarduketak gauzatzen den neurrian ordainketa zatikatuak egingo dira, aurkeztutako egiaztagiria araberako zenbatekoa ordainduz diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa agortu arte.

Bosgarrena.- Entitate onuradunak hitzarmen hau aldatzea eska dezake, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen. Halatan, eska daiteke ezarritako epeak luzatzea, onartutako zenbatekoa murriztea edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzea, eta eskatutakoa onartuko da baldin eta aurreikusi ezin ziren gorabeherak gertatu badira edo eskatutakoa onartzea beharrezkoa bada jardueraren burutzapen egokirako. Dena den, eskatutakoa onartzeak ez du diru laguntzaren xedea edo helburua aldatu behar eta ez dio hirugarren bati kalterik egin behar.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmen hau aldatu ahal izango du, entitate onuradunari entzunaldia eman ondoren eta funtsak erabili aurretik, baldin eta diru laguntza onartzean kontuan hartu ziren

gestión.

c) Un ejemplar de la certificación final de las obras, que deberá contar con planos fin de obra que reflejen la realidad de lo construido, para acreditar la inversión realizada.

Transcurrido el plazo establecido para la justificación de la subvención sin que se hubiese presentado la documentación señalada, se requerirá a la entidad beneficiaria para que en el plazo de 15 días aporte la misma. La falta de presentación de la justificación transcurrido el nuevo plazo llevará aparejados los efectos previstos en la cláusula sexta.

La entidad beneficiaria está obligada a conservar, durante un plazo de 4 años los justificantes de la realización de la actividad que fundamenta la concesión de la subvención, así como la aplicación de los fondos percibidos. El citado plazo computará a partir del momento en que finalice el periodo establecido para presentar la citada justificación.

Una vez presentada la documentación requerida, se realizará por el órgano concedente la correspondiente comprobación. Si se dedujera que el coste subvencionable ha sido inferior a la subvención concedida o que se ha incumplido, total o parcialmente, los requisitos establecidos para la justificación de la subvención o los fines para los que fue concedida la misma se comunicará tal circunstancia a la entidad beneficiaria junto a los resultados de la comprobación realizada y se procederá de conformidad con lo previsto en la cláusula sexta.

Sin perjuicio de lo anterior, podrán realizarse pagos a cuenta, como pagos fraccionados que responderán al ritmo de ejecución de la acción subvencionada, abonándose por cuantía equivalente a la justificación presentada hasta agotar el importe máximo de la subvención.

Quinta.- La entidad beneficiaria podrá solicitar, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones del presente convenio que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceros.

La Diputación Foral de Gipuzkoa podrá modificar el presente convenio, previa comunicación a la entidad beneficiaria y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en



baldintzak aldatzeagatik eragotzi edo oztopatu egiten bada lortu nahi den interes publikoa, eta onuradunari ez bazaio kalte ekonomikorik egiten.

Erakunde onuradunak egiaztapen-agirian jakinarazten badu aldatu egin direla diru laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak eta, aldaketa horiek direla eta, lehen adierazi eran ebazpena aldatzea zilegi zatekeela, baina aldaketa onartu aurreko baimen administratiboaren tramitea ez zela egin beren garaian, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu egin ahal izango du aurkeztu dioten egiaztapen-agiria, nahiz eta horrek ez duen onuraduna salbuesten Gipuzkoako Lurralde Historikoaren diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauaren arabera jar bide zaizkion zigorretatik.

Seigarrena.- Onuradunak ez badu betetzen hitzarmen honetan eta gainontzeko araudi aplikagarrian ezarrita dauden baldintzetakoren bat, laguntza hau jasotzeko eskubidea galduko du erabat edo neurri batean, eta jasotakoa itzuli beharko du osorik edo neurri batean, legezkiokkeen berandutza interesekin batera, 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren diru laguntzei buruzkoak, 35. artikuluan ezarritakoari jarraituz; halaber, erantzukizunak eskatuko zaizkio, 49. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoaren arabera. Bete gabe utzi dena mailakatzeko, proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira, indarrean dagoen diru laguntzei buruzko araudiarekin bat etorritik.

Proiektuaren bideragarritasunagatik edo izaeragatik, edo behar bezala zuritutako bestelako arrazoiengatik ezingo balitz lana bukatu edo aurrera jarraitzea komeniko ez balitz, diru laguntza bukatutzat eman eta eten ahal izango da, bi aldeen artean adostuta.

Zazpigarrena.- Hitzarmenak izenpetzen denetik aurrera izango ditu ondorioak eta bertan jarritako betebeharrak guztiz bete arte iraungo du. Era guztietara, indarraldia 2010eko abenduaren 31n amaituko da, Garapen Iraunkorreko Departamentuak berariaz luzapen bat baimentzen ez badu behintzat, dagokion azalpena eman ondoren. Luzapena beti ere hamabi hilabetetik beherakoa izango da.

Zortzigarrena.- Hitzarmena iraungiko da aurreko klausulan aipatutako indarraldia amaitu delako edo hitzarmena hautsi delako.

Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, beste alderdiaren esku egongo da haiek zorrotz betearaztea edo hitzarmena hautsi

cuenta para la aprobación del presente convenio impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos al beneficiario.

Cuando la entidad beneficiaria ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución conforme a lo indicado habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá aceptar la justificación presentada, sin que ello exima a la entidad beneficiaria de las sanciones que puedan corresponder con arreglo a la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Sexta.- El incumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de cualquiera de los requisitos establecidos en el presente convenio y demás normativa aplicable, dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la subvención y a la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente y al pago de los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en el artículo 35 de la Norma Foral 3/2007 y a las responsabilidades que de ello pudieran derivarse, según lo dispuesto en el artículo 49 y siguientes de dicha Norma Foral. Para graduar los incumplimientos se utilizarán criterios de proporcionalidad, de conformidad con la normativa de subvenciones vigente.

Cuando no se pudiera o no interesara proseguir el desarrollo del trabajo, por causas inherentes a la viabilidad o naturaleza del mismo, u otras, debidamente justificadas, se podrá resolver e interrumpir la subvención de mutuo acuerdo.

Séptima.- El Convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y durará hasta el total cumplimiento de las obligaciones contempladas en el mismo, expirando, en cualquier caso, su vigencia el 31 de diciembre de 2010, salvo resolución expresa del Departamento de Desarrollo Sostenible en la que se autorice la prórroga, previa justificación pertinente, no pudiendo ser ésta superior a doce meses.

Octava.- El Convenio se extinguirá bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior o por resolución.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra para exigir su estricto cumplimiento o para solicitar la resolución



dadin eskatzea. Halaber, diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatzen bada, eta nolahi ere, subentzio hauekin batera beste herri administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek emandako laguntzak jasotzen badira, lankidetzak aldatu edo iraungi egin liteke. Hitzarmena hausten bada, alderdiek erabakiko dute zer baldintzatan amaituko den, eta hasita dauden lanak nola ordainduko diren.

Bederatzigarrena.- Hitzarmen honek izaera administratiboa du, administrazio publikoen arteko lankidetzak hitzarmenei aplikatzen zaien zuzenbide antolamenduak zuzenduko duelarik bere interpretazioa eta garapena.

Hitzarmena interpretatu edo betetzerakoan arazorik sortuz gero, administrazioarekiko auzibideko jurisdikzioak izango du horren ardura.

Hitzarmen honetan arautzen denaz gain, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa, eta apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru Laguntzen Foru Arauaren Erregelamendua onartzen duena, aplikatu beharko dira.

Parte hartzen duen alderdi bakoitzak bereganatzen dituen erantzukizunak lankidetzak hitzarmen honen bidez bere gain hartzen dituen betebeharekikoak baino ez dira.

Eta esandako guztiarekin bat datozela agertzeko, alderdiek izenpetu egiten dute, hiru aletan, esandako egunean eta tokian.

**GARAPEN IRAUNKORREKO FORU DIPUTATUA/
EL DIPUTADO FORAL DE DESARROLLO
SOSTENIBLE,**

del Convenio. Asimismo, toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la aportación, y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas otorgadas por otras administraciones o entes públicos o privados, podrá dar lugar a la modificación o resolución de la colaboración. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución.

Novena.- El presente Convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

Las cuestiones litigiosas que puedan surgir en su interpretación y cumplimiento serán de conocimiento y competencia del orden jurisdiccional de lo contencioso-administrativo.

Además de lo regulado en el presente Convenio, será de aplicación la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y el Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, por el que se aprueba el Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Cada parte interviniente asume únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contrae en virtud del presente Convenio de Colaboración.

Y en prueba de conformidad con lo establecido lo firman los comparecientes en triplicado ejemplar en el lugar y fecha señalados.

**MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIA/
EL PRESIDENTE DE LA
MANCOMUNIDAD DE**